



AMEZKETA OREINEN BIZILEKU

Iraregi baserrira gerturatuz gero, oreinak ikus ditzakegu euren larreetan; ez da oso ohiko paisaia gurean » 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-03-26

VI.URTEA 1.391.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

LOREA AGIRRE GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN KOORDINAKUNDEKO IDAZKARIA

«Eskola Txikiak zer diren argi definituta geratzea nahi dugu»

ALKIZA laz sortu zuten Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundea, Eskola Txikiak indartzeko asmoz

NORTASUNA «Herriaren garapenarekin baino gehiago bizi iraupenarekin lotzen dugu Eskola Txikia», dio 4



Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi, larunbatean, Ibarren. «Ertzaintzak jarritako trabak» salatu zituzten senideek. HITZA

Ongietorri jendetsua Ijurko eta Aramendiri

IBARRA Pasa den larunbatean sei urtez preso egon diren Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi ibartarrak aske utzi zituzten 6


Apusturik ezingo da egin Kantabrikon

TOLOSA Eusko Jaurlaritzak jarritako debekuaren aurrean, Tomas Armendariz jabeak «egun berezietan behintzat uztea» eskatu du 3

JON JAUNARENA PILOTARIA

«Asmoa irabaztea da, baina ez dakit zer gertatuko den»

LEITZA Elgetako lau t'erdiko lehenengo kanporaketan hartuko du parte pilotari leitzarrak ostiralean, 23 urtez azpikoen mailan 7





bidali opor hauetako argazkiak!



Bidaia Agentzia sercom bidaide



Aisia **ADUANA Bainuetxean** (Orduñan, Bizkaian) 2 pertsonentzat.



Bi pertsonentzako bazkari edo afaria Berrobiko **Iriarte** jatetxean.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorbidea 5 behea, atzea 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Iraregi baserriko larreetan Oreinak ikuskatu ditzakegu. Etxe-abereak alde batera utzi eta sektore berriztatzaile honetan hasteko erabakia hartu zuten duela bost urte.

Amezketako oreinak

LEIRE GOROSTIDI

Euskal baserrietako larreetan ardi edo behiak ikustea gauza arrunta den bitartean oreinak begiztatzea ez da ohikoa. Amezketako Iraregi baserrikoek tradizio hau hautsi eta sektore berri eta ezezagun batean murgildu ziren duela bost urte. Juan Mari Agirre (Amezketako, 1956) eta honen emazte Juani Barandiaranek (Ataun, 1958) hirurogeita bederatzita orein dauzkate bost urtez geroztik.

«Zaila baino ia ezinezkoa da animalia hauek Euskal Herrian erostea eta honen ondorioz animalia gehienak Madril eta Nafarroatik ekarri behar izan genituen» dio Agirrek. Beste hainbat baserrian bertan jaio dira.

Lur sailak

Euskal Herrian ez dago oreinak izateko ohitura handirik. Juani Barandiaranen ustez oreinak nahi izate hutsa ez da nahikoa. Lur sail handiak izan behar dira baserri inguruan eta hauek elkarren artean komunikatuta egotea beharrezkoa da. «Konexiorik edo langarik ezean ezinezkoa da hauek maneiatzea».

Ez dute inolako antzekotasunik beste etxe-abereekin kontu handiz ibili behar da hauengana gertu-

ratzean «ezagutzen dugu adarkadabaten ondorioz hildako kasu bat eta ez da gomendagarria konfiantza gehiegirik hartzea».

Bitxia dirudien arren oreinak maneiatzeko, indarra ez da nahikoa. «Hamar lagun baino bakar bat hobeto moldatzen omen da», diote Iraregiok.

Animalia beldurti eta intuitiboak dira eta inguruan urduritasuna edo norbait ezezaguna sumatzean berehalakoan kezkatu eta urduri jartzen dira. «Jateko garaian ere ezezagun batek eman behar die jaten bestela ez dira hurbiltzen».

Animalia hauek ez dute ia esfortzu fisikorik suposatzen. Euren kasara ibiltzen dira.

Oreinak maneiatzeko hamar pertsona baino hobe da bakar bat egotea.

Hipotesi eta uste asko zabaldu izan da beti animalia hauen inguruan. Sarri entzun da oreinen adarren puntak urteen adierazgarri direla.

Juan Mariketa Juanik argitu bezala oreinei urtero-urtero atera-



Oreinak Iraregi baserriko lur sailetan. L. GOROSTIDI

tzen zaie adarkadura eta hau denboraldi batean bakarrik izaten dute berriz erori eta hazteko. Hasiere bateko adarrak belusezko geruza delikatu eta ahulak izaten dira eta pixkanaka gogortzen eta handitzen joaten zaizkie ezezagun ditugun adar trinkoak bilakatu arte. «Etengabeko prozesua da nahiz eta askok kontrakoa pentsatu». Adarrak oso arriskutsuak izan daitezke eta tentu handiz ibili behar izaten da.

Berezko jokaerak

Oreinek berezkoak dituzte hainbat jarrera. «Batzuk baserrian jaio diren arren defentsa instintiboa dute eta bitxia dirudien arren beraien burua babesten jarraitzen dute baserrian», dio Agirrek.

Kumeak bakarrik eta ezkutuan izaten dituzte «ezin zaie lagundu» eta hiru egun osoz gordeta edukitzen dute «pilota bat bezala bilduta». Haurdunaldiak 8 hilabete irauten du eta urtean kume bakarra izaten dute. Hala ere biziki kasurik ere egokitu izan zaigu.

Iraregiok esan bezala, erditze geroko egunetan tentu handiz ibili behar da amarekin eta honek zerbait arraroa ikusiz gero arazoak egoteko aukera handiak omen daude. Juan Mari eta Juanik jaio-tako kume gehientsuenak saldu egiten dituzte eta bakar batzuk besterik ez dute Amezketan jarraitzen.

Orein haragia Euskal Herrian komertzializatzea ez da lan erraza eta ondorioz erosleak, oreinak

Frantzian komertzializatzen dituela uste dute Iraregiok.

Oreinak izatea ez du esfortzu fisiko eta denbora gehiegirik suposatzen eta ondorioz terreno egokiak edukita inbertsio ona litzateke hau. Haragia saltzea aldez beste kontu bat da. Bizkaia aldean ba omen zegoen alde aurretik presatutako orein okela saltzen zuenik ere. «Irabazbidea utzi egin behar izan zuen bezero falta zela eta».

Oraindik ere asko kostako da euskaldunak orein haragira ohituta. Sarri, kalitatea baino ohitura hartzen da kontuan eta berdin izaten da ona ala txarra egotea. Ez dago orein haragia jateko ohitura komertzializatzea ez da lan erraza eta ondorioz erosleak, oreinak

«Oso tradizionalak gara elikagaiekin; hori dela eta, orein haragia gure elikaduratik at dago»

JUAN MARI AGIRRE ETA JUANI BARANDIARAN > Baserritarrak

Amezketako » Oreinak nahi izate hutsa ez dela nahikoa diote Iraregiok; Lur sail zabalak izatea behar beharrezkoa da.

L. GOROSTIDI

Iraregi baserriko Juan Mari Agirre (Amezketako, 1956) eta Juani Barandiaranek (Ataun, 1958) bost urte daramatzate Oreinak hezten. Baserriak dituen lur zabalei etekina ateraz behi sektorea alde batera utzi eta 69 oreinen zainketa dthardute.

Nolatan bururatu zitzaizuen ideia bitxi hau? Ez da oso ohikoa ezta? Euskal Herrian ez da arrunta orei-



L. GOROSTIDI

nak hezte. Gustuko animaliak izateaz gain lur sail aproposak ditugu baserrian. Nahi izate hutsa ez

da nahikoa. Garrantzitsuena ez-bairrik gabe lursailaren tamaina eta banakuntza dira. Iraregi baserriak

16.000m²ko partzela jarraiak ditu, oreinak lasaitasun osoz ibiltzeko tamainakoak.

Ezagutzen al duzue beste norbait ogibide berdinarekin?

Beasainen beste baserri bat dago. Hauek gu baino lehenago hasi ziren orein zainketa. Leitzan ere bada beste bat.

Oreinen kopurua handitzeko asmorik?

Momentuz dugun kantitatearekin jarraituko dugu. Hala ere, leku aldetik arazorik ez daukagunez ez dugu bazterten taldea handitzea.

Zer nolako zainketa behar dute?

Ez dute zainketa berezirik behar. Beren kontura ibiltzea dute gustuko. Jateko orduan ere nahiago izaten dute beren kasa ibili.

Nolako ohiturak dauzkate jateko orduan?

Belar freskoa da gehien gustatzen zaiena baina udazken eta neguan lurra ez duenez behar adina belar ematen belar ondua eta aletutako oloa ematen diegu.

Nola moldatzen dira leku itxietan?

Kanpoan baino lasaia egoten dira baserriko lur sailetan. Orain dela denbora bat bi oreinek baserriko alde egin eta bi egunetara itzuli ziren. Animalia hauek oso urduririk eta intuitiboak dira eta baserrian ziur ikusten dute beren burua.

Nolako da orein haragia?

Ez du zerikusirik jan ohi dugun haragiarekin. Orein okela behiarena baino gozoagoa da. Hainbat jate-txetan eskaintzen duten arren bereziki ez dute eskatzeko ohitura eta eskaintza eskaera baino handiagoa denez, prezioak ere altuagoak izaten dira. Oso tradizionalak gara elikagaia aukeratzeko garaian eta orein haragia tradizionalmisismoetatik atgeratzen da.

Laburrak

Kirol topaketak gaur, Aiztondoko gazteentzat

KIROLAK ■ Zizurkil, Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo gazteentzat kirol topaketak izango dira gaur arratsaldean. Honenbestez, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxean hainbat jarduera aurrera eramateko aukera izango da 16:30etik aurrera. Horien artean, street basket, patinen zirkuituan ibiltzea eta ginkana. Ekimena Kaxkagor elkarteak antolatuta du, eta deialdia irekia da.

Bigarren Hezkuntzako titulua ateratzeko aukera

TOLOSA ■ Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba askeak izango dira maiatzaren 14ean, Tolosako EPAn. Azterketarako izen-ematea hilaren 31tik apirilaren 25a bitartean egin ahal izango da Tolosako helduen hezkuntzako eskolaren egoitzan bertan.

Herriko festak antolatzeko bilera, astelehenean

ANOETA ■ Herriko festak antolatzeko hurrengo bilera hilaren 31n izango da, hau da, datorren astelehenean. Batzarra 19:00etan izango da, Anoetako udaletxean bertan. Hori dela eta, festa batzordeak herriko taldeei eta herritar orori deitzen die parte hartzera bilera horretan.

'Blandiblu' tailerra izango da ostiralean, Errotan

TOLOSA ■ Tolosako Errota Haur Liburutegian, gaur, 12:00etatik aurrera, zazpi eta hamalau urte bitarteko haur eta gazteentzat tailerra izango da. *Blandiblu*a zientzia irrikorren tailerra izango da hain zuzen ere.

Asturiasera bidaia antolatuta du Harizpe elkarteak

TOLOSA ■ Harizpe jubilatuta eta pentsiadunen elkarteak Asturiasera bidaia antolatuta du apirilaren 23tik 28ra bitarteko. Izen-ematea irekita dago jada eta hau elkartean bertan egin daiteke. Pentzio osoko zerbitzuan egongo dira bidaiariak. Hala, txangora joan nahi dutenek 250 euro inguru ordaindu beharko dute.

Hamalau orduetan izen-ematea zabalik

TOLOSA ■ Maiatzaren 18an izango da Aralarko Adiskideek antolatutako XIV. orduen ibilaldi neurtua. Lau urtekin behin egiten den ibilaldi honetarako irekita dago jada izena emateko epea. Hala ere, oraingoz Internet bidez bakarrik egin ahal izango da. Honetarako mendi elkartearen webgunean sartu beharra dago, hau da, www.xivorduak.com-en.



Kantabriko hitzartu zen azken apustuak bat Otaegi eta Rekondoren artekoa izan zen. ASIER IMAZ

Hemendik aurrera ezin izango da apusturik egin Kantabriko tabernan

Tolosa ■ Debekuaren aurrean, Tomas Armendariz jabeak eskatu du, «egun berezietan» apustuak egiten uztea.

ESTI EZEZIA

Tolosako nahiz Euskal Herriko apustu-zale ugariaren biltoki izan da hainbat eta hainbat urtetan Kantabriko taberna. Baina, Eusko Jaurlaritzaren araudi berria dela eta, hemendik aurrera ezingo da apusturik egin bertan. Dena den, Tomas Armendariz, bertako nagusiaren helburua da egun berezietan apustuak egiteko baimena lortzea.

Tomas Armendariz, Kantabriko nagusiak azaldutakoaren arabera, duela hilabete batzuk gutun bat jaso zuen, jakinaraziz, debekatua zegoela tabernetan apustuak egitea, 1991n onartutako lege-diaren arabera. Honenbestez, Kantabriko ere ezingo zela mota honetako jokorik egin. Bertan ohartarazi zioten gainera, isun bat ordaindu beharko zuela, tabernan apustuak egiten jarraitzeagatik.

Honen ostean, hainbat Udalekin harremanetan jarri zen Armendariz, eta hauek idatzi bat luzatu zioten, beraien babesa agertuz, eta Kantabriko tabernak, herri kirolen inguruan egiten zuen sustapen lana goraituz. Tolosarrak agiri hauek guztiak bildu, eta Eus-

ko Jaurlaritzatik bidalitako gutunari alegazio batekin erantzun zion. Agiri hauek ere gehituz. Halaber, duela egun gutxi beste esku-titz bat jaso zuen, eta oraingoan argi eta garbi debeketzen zioten apustuak gauzatzea. Gainera, 2.000 euroko isuna ordaintzea ixijitu diote.

Orain Tomas Armendarizek hamabost egun ditu erantzuteko eta hori egiteko asmoa du. Bere helburua da, isuna ordaindu behar badu ere orain. Gerora, txapelketa eta norgehiagoka berezietan apustuak egiteko baimena izatea Kantabriko tabernan. Horien artean, pilota txapelketetako finaletan, Kontxako estropadetan, eta herri kiroltako zenbait desafiotan...

24 etxebizitza babestu zozketatuko dituzte larunbatean

Zizurkil ■ Kultur Etxean egingo dute bizitza horien zozketa; 09:30ean hasiko dira irabazleen izenak ateratzen.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak eta Etorlur elkartek herriko Joxe Arregi plazan egin asmo diren 30 etxebizitza babestuetariko 24 zozketatuko ditu larunbat honetan. Etxebizitza hauek 75 urterako azalera-eskubi-

de erregimenekoak dira, eta zozketa 09:30ean egingo da Kultur Etxean.

Aipatu beharrekoa da, sustapen hau foru proiektu handiago baten barruan sartzen dela. Izan ere, proiektu horrek lehen fase batean 42 etxebizitza eraikitzea aurrerikusten zuen. Horiatarik 30 babes-tuak izango direlarik. Etxebizitza hauek Joxe Arregi plazan eraikiko dira bi bloketan banatuta. Honen ondorioz, Udalekoek agertu bezala, «inguruaren irudia erabat aldatuko da aurreikusitako urbaniza-

zio lanak amaitutakoan». Gainera, dute ere, era honetan, herriak bertako bizilagunen gozamenarako atondutako gune berri bat izango duela. Bestalde, ondoren egingo den eremu horretan bidegorria ere jarriko dute.

Babesturiko etxebizitzak bat, bi edo hiru gelakoak izango dira, eta guztiak trastetegia eta garajea izango dute. Etxebizitza guztien erdiak Zizurkil erroldaturiko bizilagunentzat erreserbatuko dira, eta gainerako %50a Gipuzkoako lurraldean bizi direnentzat.

Zizurkilgo plazaren izenarengatik salaketa jarri dute

Zizurkil ■ «Terrorismoaren gorazarre gisa» Mugika eta Blancoren senideek jarri dute salaketa Epaitegietan.

ERREDAKZIOA

Fernando Mugika eta Miguel Angel Blancoren senideek salaketa jarri dute, «Zizurkilgo plaza bat beraien ahaideen hiltzaileetako baten omenez izendatua dagoelako». Hauen ustez, «enparantza ETAKide izan zen pertsona baten izenez deitzearekin, terrorismoaren etengabeko gorazarrea egiten da».

Ruben Mugika, Alderdi Sozialistako abokatu zenaren semeak eta Mari Mar Blanco, Ermuako zinegotzi erailaren arreba herengun jarri zuten salaketa Donostiako Guardiazko Auzitegian eta Madrilgo Plaza de Castellán. Ruben Mugikak azaldutakoaren arabera, «egunkari bat irakurtzen ari nintzela, bertan irakurritakoan jakin nuen Zizurkil Jose Luis Geresta (*Totto*) ETAKidea zenaren omenez izendatua dagoela». Hau irakurri ondoren, zuzenean gardian zegoen epaitegira bideratu zen salaketa jartzeko. Bertan jartzen duenaren arabera, egoera honek terrorismoaren gorazarrea egiten du, zein hau Zigor Kodearen 578. artikuluan agertzen da, «terrorismoaren biktimei egindako irain gisa». Mugikak agertu du ere, ez dakielako noiztik dagoen plaka hori jarrita plazan, eta bere asmoa ez dela inoren aurka joatea. Bestalde, espero duena da, Donostiako auzitegia Audiencia Nazionalaren alde jartzea eta prozesu penal bat abian jartzea. Honela, «delitu» hau egin dutenak zeintzuk diren jakiteko eta zigortuak izateko. Honez gain, Gerestaren omenezko plaka kentzea ere administratiboki ere ekin-tza hori ezezteko.

Bestetik, Fernando Mugikaren semeak terrorismoaren gainontzeko kaltetuei deitu die, ekimen honekin bat egitera. Honez gain, antzeko egoerak salatzea eskatu die. Deialdi bera egin zuene ere Mari Mar Blancok. Honek ere Zizurkilgo plazaren inguruko salaketa jarri zuen Madrilén. Bere esanetan, izendapen hau, «argi eta garbi iraina da».

@ Irudietan. Aurten ere, Aste Santuko oporraldia dela eta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK argazki lehiaketa antolatuta du. Parte hartu nahi dutenek, beraz, has daitezke argazkiak bidaltzen. Bestalde, erretatu hauek ikusgai egongo dira eskualdeko egunkariaren webgunean.

E **Elkarrizketa****LOREA AGIRRE** › Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakundeko idazkaria

ENERITZ MAIZ

«Eskola Txikiak zer diren argi definituta geratzea nahi dugu»

Alkiza › Lorea Agirre Gipuzkoako Eskola Txikien koordinakundeko idazkaria da. Eskola Txikiak indartzeko asmoz lan talde jatorra osatu dute.

ENERITZ MAIZ

Iaz sortu zuten Gipuzkoako Eskola Txikien koordinakundea. Alkizan bizi den Lorea Agirre (Beasain, 1968) idazkari lanetan ari da bertan. Irailean koordinakundea osatu zutenetik, zertan ari diren eta zein helburu dituzten kontatu digu.

Eskola Txikien koordinakundeko idazkari lanetan ari zara.

Gipuzkoa mailako Eskola Txikien koordinakundea da eta Eskola Txikien Guraso Elkarteak kideak osatzen dugu. Urte askoan pertsona baten gainean funtzionatu izan du eta iaz funtzionamendu honek aldaketa behar zuela eta, zuzendaritza eratzea erabaki zen. Jende gehiagorekin osatu eta gauza gehiagotara iristeko aukera izateko.

Koordinakundeko partaide guztiak gurasoak zarete?

Bai taldeko kide izateko guraso izan behar zara. Inoiz planteatu izan da norbait hartzea lan hauek egin ahal izateko baina dohainekoa da, lan militantea da. Mugimendu txikia du baina badu bere lana. Zortzi kideko taldetxo bat gara, sei lagunek funtzionatzen dugu eta beste biak aholkulari be-

zala daude. Bi horiek lehenagotik egondakoak dira. Lehenakaria berriz, Izaskun Carrera da. Honez gero, Gipuzkoa eskualdeko bakoitzak arduradun bat du. Adibidez, nire ardurapean Albiztur, Alkiza, Aduna, Zizurkil eta Errezilgo eskolak daude.

Eta nola funtzionatzen duzue?

Guztira 26 eskola gara. Lehenengo bakoitza bere eskualdekoekin biltzen da. Jarraian, urtean zehar bi, hiru edo behar diren asanblada orokorrak egiten dira. Asanblada hauetara, eskola bakoitzetik hiru edo lau guraso etortzen dira. Egitura da hau eta egitura honekin zerbait gehiago lortu nahi dugu.

Koordinakunde hau sortzeko beharra ikusi zenuten?

Eusko Jaurlaritza, oker ez banago, 2012. urtera begira Euskal Autonomia Erkidegorako Eskola mapa egiten ari da orain. Hau da, non dauden eskolak, zein eskola mota diren, zenbat ikasle dituzten, zenbat haziko diren edo ez diren haziko... Proposamen horretan Eusko Jaurlaritza eskola osatuak deitzen dituzten sartzen dira, hau da, era gutxiak; pribatuak, publikoak edota konzertatuak eta guk

ere Eskola Txiki bezala hor egotea lortu dugu. Mugimendua dago eta gure bereizgarriak ere baditugu. Guk hauek errebeindikatu eta garatu nahi ditugu.

Zer da benetan aldarrikatzen duzuen?

Landa guneko eskola eta euskaldunak gara. Bestetik, oso garrantzitsua da pedagogia aldetik adin ezberdinetako umeak gela berean daudela. Eskola Txikietan ume gutxi daudenez, behartuta gaude horrela antolatzea baina aldi berean, guretzat, aberastasuna da. Pedagogia aldetik ere, umeentzat hori ona dela uste dugu. Oso eskola familiarak dira eta bertan giroa sortzen da eta baita baloreak ere. Eskola Txikietako gurasoak eta irakasleek hori estimatu egiten dugu. Herriaren garapenarekin eta garapenarekin baino gehiago herriaren bizi iraupenarekin lotzen

«Herriaren garapenarekin baino gehiago bizi iraupenarekin lotzen dugu Eskola Txikia»

dugu. Herri txiki batek iraungo badu, guretzat eskola egotea beharrezkoa da, horrela ezean herriak dinamika gabe geratzen dira. Eskolak herriari ematen dio: umeak herriaren geratuko dira, plazan jolastuko dira, herriaren izango dute koadrila... eta aldi berean herriak

zer ematen die? naturarekiko kontakta, libre hazteko guneak... Nolabait guzti hau, gu geuk garatu nahi dugu eta txosten batzuk ere osatuko ditugu zer garen definituz. Gehien bat, Eusko Jaurlaritzaren aurrean Eskola Txikiak gara esateko aukera izatea lortu nahi dugu. Zer da hori? esaten dizute. Bada gu hau gara eta ona dela defendatzen dugu; bai umeentzat eta herriarentzat.

Definizioa lantzen ari zarete orduan?

Bai, orain batzordean definizio honetan gaude. Aurretik ia pertsona bakarra aritu da eta ahal izan duena egin du. Lan asko zerbitzuetan egin du, hau da, eskola txikiak beste eskolek ez dituzten eskaerak dituzte, oso oinarrikoak direnak. Jangela edo autobus zerbitzua behar dela. Beste eskoletan inork ez du pentsatzen ez denik egongo eta guk gauza hauek lortzeko borroka egin beharra daukagu. Orain artean, zerbitzuetan aritu gara eta orain zerbitzuez gain, gure eredu zein den zehaztu nahi dugu. Hilarbetero biltzen gara eta Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri gara.

Eta nolatan zu idazkari?

Horrela egokitu zen. Eskualde bakoitzak arduraduna behar zuen eta elkartu ginenean, batek idazkari izan behar zuen eta ni idaztera ohituta nagoenez neroni. Aktak jaso, txostenak idatzi, Jaurlaritza-

ra aurkeztu... Orain Arrasateko unibertsiterako txostena idatzi beharra daukagu eskola txikien gainean.

Taldea urtero berrituko da?

Ez. Lehenakaria bost urtez etagu printzipioz bi urtez egongo gara taldean. Hala ere, guk beharbada jarraituko dugu, prozesua nola josten den ikusiko dugu. Eztabaida prozesua zabaldu eta ahalik eta guraso gehienengana iriste a nahi dugu, guk ez dugu erabakiko. Herri bakoitzaren errealitatea ere oso

«Adin ezberdineko umeak gela berean egotea pedagogia aldetik ere ona dela aldarrikatzen dugu»

ezberdina da, orain dela hamar urte eskatzen zena eta gaur eskatzen dena ezberdina da. Beharrak aldatu egin dira. Gure helburua eztabaida prozesua zabaltea da eta denok parte hartzea da.

Hurrengo urteetarako helburuak zehaztuak dituzue orduan?

Prozesu hau guztia abiatzea da lehen pausua. Asanbladan planteatuko dugu eta ea jendeak nola erantzuten duen eta zer esaten duten. Eusko Jaurlaritzako eskola planean gure Eskola Txikia terminoa sartu izana ondo dago baina orain gure definizio propioa jarzteko nahi dugu, bertan argi geratu dadin zer den Eskola Txikia. Bestetik, herri bakoitzaren beharrak jasotzea gustatuko litzaiguke. Adibidez, Alkizan nola daude? nola dago eskola? zaharra, berria, lekurik baduten... informazioa bildua izan eta honen arabera jakingo dugu zer eskatu Jaurlaritzari. Eskola batzuk oso egoera txarrean daude, oso lokal zaharretan eta horiei erantzuna eman behar zaie; berria egin edo berritu. Azken finean, gu eskola publikoak gara eta hau ere gure ezaugarrietako bat da.

Gaur egun zein egoeratan aurkitzen dira Eskola Txikiak?

Herri txikietan etxeak egin dira eta jende gehiago etorri da. Garai okerragoak ezagutu dira. Ume gehiago dago eta badira herriak, eskola txikia aspaldi galdu zutenak baina berriro ere eskatzen ari direnak.

Zuengana jotzen dute laguntza bila?

Orain artean herri bakoitzak bere bidea egin du. Ondo dago eta bakoitzak bere autonomia izan behar duela uste dut. Herri txiki batean Udala oso garrantzitsua da, batzuk dena ematen dute eta beste batzuk ez. Gu ez gara hasiko lehen tasunak markatzen baina informazio zentralizatu nahi dugu. Gaur egun ia inork ez daki Eskola Txikiak zein egoeratan aurkitzen diren eta guzti hau bildu nahi dugu. Eta beste helburu bat ere badugu, irakasleak formatu eta egonkortzearena hain zuzen. Lehen esan bezala, pedagogia berezia da eta inondik ez dira ateratzen irakasleak prestatuta.

G Gutunak

KMK-08koen aldetik, eskerrak

Urtea aurrera doan heinean, KMK-08ko egitasmoak ere, urtearekin batera, aurrera doaz. Azkeneko ekitaldia, martxoaren 8an, Leidor antzokian Pirritx eta Porrotx pailazoek eskainitako 'Eske-rrik asko' ikuskizuna izan zen. Eskerrak, lehenik, beraiei, bai ikastolaren eraikin berria egindako prentsaurrekoan erakutsi zuten prestutasunagatik eta bai goian aipatu den egunean eskainitako bi saioengatik. Esperientzia ahan-tzina haur askorentzat, dudarik gabe, eta baita hain haur ez garen beste askorentzat ere.

Bide batez, lerro hauek baliatu nahi ditugu ekitaldiaren inguruan laguntza ematera edota emanaldia ikustera inguratu ziren guztiei gure esker ona adierazteko; esker-rrak baita Tolosako Udalari ere, hau guztia aurrera ateratzeko emandako laguntzagatik.

Dagoeneko urte-erdia igaro da eta hasieran jarritako helburuak ere, pixkana-pixkana, lortze-bidean dira, betiere inguruko jende askoren laguntzari esker. Oraindik badugu zer egina, baita zer ikasia ere, ezbaierik gabe, baina orain arte bezala jendearen erantzuna izango dugu, horretaz ziur gaude, eta 'Kilometroak' bultzatuz gure ilusioak ere egiazen forma hartuko du.

Eskerrik asko guztioi!

Joxe Mendizabal (Kilometroak)

08ko Batzordearen izenean).
lurra.

Oilategia

Oilategiko oilo gorbatahunak, entzun dezute oraingoan garraxi oihua. Dolu monopolizatuaren al-taboza zaretanok, nabaritu dezute zartakoaren uhin deskontua. Mer-kealdiko onura politikoak baili-tzan, zabiltzelako haiek berega-natu nahian, oilo-busti aleak.

Bazabiltzate oilar harrotasunez derrigortzen, bortxaren zioak bes-teei aurregiratzen, zuenak zuritu nahian. Bazabiltzate egoera kaka nahasteko gogoz, zuen demokra-zia esterilaren aitzakipean zanpa-tzeko.

Bazabiltzate oilotu nahi duzuen populua oldartzen, torturatzen, dispertsatzen, espetxeratzen, ile-galizatzen, itozten... indarkeri maskaratuaz, etxeko arto aleak ad-ministratzen, zuena ez delako bor-txakeria, ez, zuena legepeko bor-txa delako, lotsagabeak!

Arduatsuz jokatzeko garaiak di-tugu mota guztietako mokokade-kin amaitzeko, betorik gabeko oi-lategian denek leku izateko, oilo-larrua ipiniko digun herriak erabakitakoa, denek errespetatu-ko dugulako.

Kontsentsuz, bakeari behingoz merezitako harrera emanez. Orain da garaia, iruzurrik ez!

Haimar Altuna (Meaux-eko Preso Politikoen Batzarraren izenean).
Lizartza.

B Blogteka info

Samaniego ikastetxea ETB1 katean

Horrelakoa da bizitza ETB1eko saioak Samaniegoko Haur Hez-kuntzako eraikinean grabaketa egin zuen aurreko astean. Bertan 6.mailako ingurumen batzordeko ordezkariak, arduradunak eta zu-zendariak parte hartu zuten.

Saio hau ikus ahal izango duzue, gaur, 19:15ean (saskibaloia izanez gero saioa 19:45ean emango dute).

Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/samaniego/>

L Laburrak

Hernandez eta Gaztañagaren lanak

TOLOSA • Tomas Hernandez eta Txetxo Gaztañagaren erakusketak daude ikusgai Aranburu jaure-gian. Hernandezena larunbatera arte izango da ikusteko aukera, eta Gaztañagarena apirilaren 5era arte.

Portugalera bidaiari antolatuta du Iturizak

TOLOSA • Iturriza jubilatuta elkarteak (Euskal Herria plaza) Portugalera eta Fatimara bidaiari antolatuta du apirilaren 14etik 19era. Izen-em-atea, elkartean egin daiteke.

S Soka motzean

«Motorrez leku finko jakinik gabe joan nintzateke»

GORKA NAVASCUES

Motozalea, langilea, alaia, leitzarra...

NEREA URBIZU

Mozorro bat?

Ez zaizkit gustatzen, baina aukeran, eroso eta ongi pasatzeko.

Kontzertu bat ala...

Kontzertu on bat.

Zeinek hartuko zenuke pote bat gustura?

Nirekin zerbait hartzen gustura egongo litzatekeen edozeinekin.

Moto bat zertarako?

Libre izateko.

Moto batekin nora?

Noraezean, leku finko jakinik gabe.

Bakarrik ala norbaitekin?

Bakarrik; motoa, zu zeu eta motoa bera da.

Beldurra zerbaiti al diozu?

Ez.

Eta zerbaiti beldurra izan behar zaio?

Beldurra ez, errespetua bai.

Bisitatu beharreko leku bat?

Mutturbero elkarte Leitzan, hemendik hilabete gutxira.

Iganderako planen bat?

Egun tristea da: ongi pasatzea, baina beti gaizki gaude...

Zeini eginen zenioke Soka Motzean?

Nire lagun Urkori, maiatzean ezkontzen da [kar-kar].



TXOTX

Urbitarre

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Laja

Arkolla auzoa, 33 (www.lajajerregia.com)
Tel.: 943 646 309 (info@lajajerregia.com) Hondarribi

Lindurrenborda

Nabaz auzoa
Tel.: 948 637 212 Lesaka

Ola

Meaka auzoa, 102
Tel.: 943 623 130 Irun

Aduriz

Aranedef bidea, 28. Iturriotz auzoa
Tel.: 943 494 353 Oiartzun

Egi Luze

Zamalbide auzoa
Tel.: 943 523-905 Errenteria

Ixopinondo

Sagamotegia bidea, Lan Zelai (ixopinondo@wanadoo.fr)
Tel.: 559 546 234 Azkaine

Bordatto

Bordatto etxaldea
Tel.: 559 491 822 Jatsu

Donosti

Zamalbide, 8
Tel.: 943 526 041 Errenteria

Txindurri Iturri

Mendari auzoa (www.txindurri.com - txindurri@txindurri.com)
Tel.: 943 199 389 - 699 684 490 Itziar

Arratzain

Arratzain Zahar baserria (www.agroturismoarratzain.com)
Tel.: 943 366 663 (info@agroturismoarratzain.com) Usurbil

Begiristain

Iturrioz baserria
Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta

Isastegi

Aldaba Txiki, 15-A (www.isastegisagardotegia.com)
Tel.: 943 652 964 (isastegi@isastegisagardotegia.com) Tolosa

Sarasola

Bebailara auzoa
Tel.: 943 690 283 Asteasu

Zabala

Garagartza baserria (www.rzabala.com)
Tel.: 943 690 774 (info@rzabala.com) Aduna

Otazu

Otazu baserria
Tel.: 943 670 044 Leaburu

Eguzkitza

Eguzkitza baserria - Usabal auzoa, 35
Tel.: 660 654 317 Tolosa

Erreka

Erreka auzoa
Tel.: 948 510 625 Leiza

Elutxeta

Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 Urnieta

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

Otsua-enea

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 556 894 Hernani

Iparragirre

Osiñaga auzoa www.iparragirre.com
Tel.: 943 550 328 Hernani

Rezola

Ipintza baserria - Santio Zaharra - rezolasagardotegia@euskalerria.org
Tel.: 943 556 637 Astigarraga

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria www.gartziategi.com
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com
Tel.: 943 333 333 info@sidreriaakelenea.com Astigarraga

Gurutzeta

Oialume bidea 63 (sarrera Ergobia auzotik) gurutzeta@gurutzeta.com
Tel.: 943 552 242 www.gurutzeta.com Astigarraga

Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi preso ohien ongietorria, jendetsua

Ibarra » Sei urte preso egin duten gazteen ongietorria Independentziaren aldeko manifestazioa baliatu zuten, «traben gainetik».

NEREA URBIZU

Joan den larunbatean Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi presoengietorria izan zen haien sorlekuan, Ibarra, hain zuzen. Sei urte espetxeratu izan ondoren, 700 lagunek egin nahi izan zieten ongietorria bertan. «Baina ez ziren haiek bakarrik izan, Ertzaintza ere han zegoen», eta hainbat herritarrek esan bezala, «mehatxatu eta tentsio izugarria jarri zuten herrian. Probakazio hutsa izan zen».

Asteartetik manifestazioa deituta zegoen egun horretarako, ongietorriarekin lotuta, baina debekatu egin zuten. Honen aurrean, Etxeratak deialdia bertan behera uztea erabaki zuten. Independentziaren aldeko manifestazioa deituta zegoen Ibarra egun berdinerako eta hori onartuta zegoen: «Nahiz eta talde ezberdina izan, Independentziaren aldeko manifestazioa baliatu genuen: *biharko Aherri Eguna Independentziaz jantzita* zen leloa», Etxerateko ki-deek esan bezala.

Ostiral gauetan, baina, Ertzainak manifestazioa ilegal zela eta egin behar zuten afaria ere ezin zutela egin adierazi zieten. «Baina, herri afaria independentziaren aldeko ekitalditzat gurek, eta ez ongietorritzat. Gauzak argitu (edo nahastu nahian), alkatearekin hitz egin zuten ertzainek, Leon parean (Espainia) bi gazteak zetozela hainbat dei egin behar izan zituzten ekitaldia posible zela eta ez jakiteko... Alde guztietatik trabak jartzten hasi ziren ertzainak».



Larunbatean iluntzean, independentziaren alde egindako manifestazioaren une bat. HITZA

Azkenean, Ertzaintzak ikusi zuten Independentziaren aldeko manifestazioa legala zela. Baina, hala ere, afariaren garaian ongietorriarekin lotuta ekitaldirik egiterik ez zela posible adierazi zuten ertzainek, eta baita plazan ez zela posible izango egitea ere, «ongietorriarekin nahastuko baitzelako». Azkenean, «lortu genuen kiroldegian egitea: hitzez behintzat hala onartu ziguten».

«Presoen oihurik ez»

Arratsaldean, iritsi zirenerako «herria hartuta zegoen, 7-9 furgona zeuden herrian». Emeterio Arrese plazan, manifestazioa hasi behar zen momentuan «ertzainak oztopoak jartzten hasi ziren: ez zutela euskal presoen inguruko oihurik nahi, nahiz-eta Eusko Legebiltzararak aspaldi onartua izan, ezta presoen argazkirik, bestela degingo egingo zutela manifestazioa... Bakarrik ikurriñak eta *Independentzia* oihuak onartzen zituz-

ten». Baina, ez zituzten irudirik kendu, «hortik ez ginen pasa». Hala egin zuten manifestazioa, independentzia oihukatuz, eta baita presoengazkiekin ere.

Plazara iritsi zirenean, «700 bat lagunuen aurrean» Ibarra Gazte-txera joan eta ekitaldi xume bat egin zitzaion Ijurko eta Aramendiri. «Plazan egin nahi izan genituen zenbait ekitaldi ezin izan ziren egin: kantak, dantzak, Eiderren dantza ikasle ohiek prestatutako arku... Jende askok egin zuten lana dena antolatzeko».

Afaria kiroldegian egin zuten

Ondorioz, afaria kiroldegian egin behar izan zuten: janaria «dagoeneko hotza», gora igo, autoarekin gora eta behera... «Baina giroa berrotu genuen», bi preso ohiekin.

Gauean, afaldu ondoren, 00:30a aldera kiroldegian ertzainak azaldu ziren eta autoetan isunak jartzten hasi ziren. «Gutxienez bi lagun 300 euroko isuna jarri zizkie-

ten, eta biak, janaria gora eta behera eramaten aritu zirenean ziren. Tentsio izan zen berriz, bainajendeak ez zuten kasurik egin».

01:30a aldera, bi furgona eta ertzainak armak gainean zituzten, eta arrazoia, «Udaletxeko furgoneta bat erabili genuelako» izan zen. «Udaletxeko hiru langile gubitzen auto horrekin, eta Udala jakinaren gainean zegoen, baimena baguenen, noski». Hala ere, «alkatearekin jarri ginen harrimanan hori baieztatzeko eta ertzainek ikusi zuten egia geniola».

Dokumentazioa bi kideri eskatu zieten, «bestela atxilotu egingo zizutela mehatxatuz». Ordurako «jendeak izan zuten nahikoa arrazoi berotzeko, ertzainen aldetik probakazioa izan zelako une askotan. Jendearengan ezintasuna ere nabarmendu zen. Adierazpen askatasuna ia ez dagoela ikusi zen, eta askatu berri dituzten presoek, irudi horrekin ez dute aldatetarik ikusi azken sei urte hauetan».

Gaur eta bihar, Kultura eta gizarte-ongizate batzordeen bilerak

ERREDAKZIOA

Amezketan Udaleko batzordeen bilera irekiak egingo dituzte gaur eta bihar. Gaur kultur batzordea biltzeko da 20:30ean balioanitzeko gelan. Gaiak, elkartei laguntzak eta diru eskaerak erabakitzea; 12-16 urteko gazteen dinamizazioa; turismoa bultzatzeko proiektua; ikastaroen informazioa; UEMAn sartzea aztertu eta Agenda 21ti dagozkion ekintzak batzordeari pasatzea.

Bihar, berriz, ordu eta leku berean gizarte ongizate eta ingurumena batzordea bilduko da honakoak aztertzeko: faxadetakoa pintaketekin lotutako keak; ur kudeaketa egokiena; balioanitzeko gelaren erabilera; lan poltsan daudenen hautaketarako irizpidea; helduen programako lanak banatu; Enirio-Aralar Mankomunitateko bilera-ko informazioa eman; Julian Sagastumeren eskaera eta Agenda 21eko dagozkion ekintzak bi batzordeei pasatzea. Herriarrentzat irekiak dira bilera hauek.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Allegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Olaberria Munduko Txapelketan ariko da

Ikaztegieta » Britainia Handian dago, eta bihar bertan jazarpena egingo du han bertan. Larunbatean puntuazioan lehiatuko da.

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria Munduko Pista Txapelketan ariko da aste honetan zehar, Cespa-Euskaditaldearekin: gaur Manchesterren (Britainia Handia) hasiko da txapelketa honetan. Jazarpeneko proban saiatuko da lehenengo, bihar, eta beranduago, larunbatean hain zuzen, puntuazioan jardungo du.

Pista txirrindulari ikaztegietera «animoeekin» dago, eta «baikork gainera», bi probak egiteko; bai jazarpena eta baita puntuazioa ere. Orain gutxi arte Mallorcan izan da (Hernalde katalanak) eta bertan indarra hartu du, egoera fisikoa hobetuz.

Igandera arte izango da bertan, dagozkion bi probak egiten. Duela egun batzuk iritsi zen bertara.

Olinpiar Jokoetarako txartela

Ikaztegieterak jazarpen probarekin hasiko du txapelketa eta bere markarik onenera gerturatzeko asmoa du (3'41"9). Puntuazioko finalean parte hartuta bukatuko du

txapelketako parte-hartzea, eta Pekingo Olinpiar Jokoetarako txartela lortzea espero du. Olaberria bosgarren dago Pekinera joango diren puntuazioko rankinean. Bere aurrakiekiko daukan abantaila nahikoa handia da (4 txirrindulari aurrea hartu behako lioke Olinpiar Jokoetatik kanpo uzteko), baina munduletan «ezingo du hutsik egin».

Txapelketa honetan guztira 300 txirrindulari parte hartuko dute (93 emakumezko eta 207 gizonezko). Munduko dominak jokoan egoteaz gain, Olinpiar Jokoetarako azken txartelak ere jokoan dauka.



Olaberria, Herrigintzak eta Udalak egindako azken omenaldian. HITZA



N. GARZIA

«Asmoa irabaztea da, baina zer gertatuko den ez dakit»

JON JAUNARENA » Pilotaria

Leitza » Elgetako lau t'erdiko lehenengo kanporaketan parte hartuko du ostiralean, 23 urtetik beherakoan.

NAIARA GARZIA

Jon Jaunarenak (Leitza, 1992) hainbat txapelketa irabazi ditu aurten. Joan den urtean Elgetako lau t'erdian kadete mailan txapela eskuratu zuen eta aurten 23 urtetik beherako mailan jokatu du, lehenengo aldiz. Ostiralean izango du lehenengo partida Elgetako pilotalekuan.

23 urte azpitik txapelketa batean parte hartzen duzun lehenengo aldia da, ez?

Bai, zaila izango da, denak ni baino zaharragoak baitira.

Ostiralean Quina pilotariaren aurka ariko zara. Lehia gogorra izango al da?

Bai, ni baino 2 urte zaharragoa da eta nahiko ongi aritzen da.

Urduri jartzen den horietakoa al zara?

Ez bereziki.

Aurten makina bat partida jokatu dituzu baina ostiralerako norma-

lean baino urduriago jarriko al zara?

Oraindik behintzat ez nago urduri, momentua iristen denean ikusi beharko.

Lehenengo urtean kadete mailan jokatu zenuen eta irabazi egin zenuen.

Bai, aurten berriz zailagoa izanen da, txapelketa luzea izango da, eta partida bakoitzean kanporaketak egiten dituzte. Partida bat galduz gero kanpora zoaz. Bestela, aurrera jarraituz gero, txapelketa luzea izango da.

Aurten denboraldi ona egin duzu, ezta?

Bai, txapelketa dezente irabazi ditut, eta 33 txapela inguru.

Ze helbururekin zoaz ostiralean Elgetara?

Asmoa irabaztea da, baina gero zer gertatuko den ez dakit.

Otsailean Asperekin aurrekontratua sinatu zenuen.

Bai. Halere partidak Leitzako taldearekin jokatzen ditut, baina orain Asperekin ere entrenatzen dut. Lehendik ere Asegarcerekin aritu nintzen, Tolosan. Ni bezala beste mutil batzuk badaude eta binaka aritzen gara, oraingoz Eibarren edo Donostian.



Ibarratik aterako dira igandean. HITZA

Datorren iganderako moto irteera antolatu du Langostino Moto Taldeak

Ibarra » Lehenbailehen izena ematea garrantzitsua dela azpimarratu dute antolatzaileek.

ERREDAKZIOA

Langostino Moto Kultur Elkarteak moto-bira antolatu du datorren iganderako. Irteera bat egiten duten bakoitzean ohikoa den bezala, Ibarra San Bartolome plazatik abiatuko dira, 09:30ean.

Ibilbidea ondorengo hau izango da: Ibarra, Tolosa, Lizartza, Atallo, Betelu, Lekunberri, Atondo, Asiain, Ororbia, Asiain, Urritzola, Irurtzun, Betelu, Atallo, Lizartza, Tolosa eta Ibarra. Ibarra 13:30 aldera iritsiko direla aurreikusitako Garesen egungo dute. Pertsona bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu eta antolatzaileek aldeaz aurretik zenbat izango diren jakiteko izen-ematea garrantzitsua dela azaldu dute. Bira edozein motatako motoentzat egokia dela zehaztu dute.

Izena emateko epea

Izena helbide elektronikoko bidez eman daiteke (langostinomotofesta@gmail.com) edo ondorengo telefono zenbakietara deituta: 630 78 42 13, 670 41 79 15, edo 636 40 31 70.

Unai Onsalok ezingo du 15 egunez jokatu, min hartu ondoren

Pilota » Biharko Izarrak Txapelketako partidari pilotakada bat eman zioten ukondoan, halere, partida amaitu eta irabazi zuen.

N. GARZIA

Unai Onsalok ezingo du 2 astez partidarik jokatu, ezta entrenatu ere, atzo Biharko Izarrak Txapelketan min hartu ondoren. «Atzelariak ezkerreko ukondoan eman zidan eta eskuan batere indarrik gabe gelditu nintzen». Hau dela eta, bospasei minututako etenaldia egin behar izan zuten. «Reflex pixka bat bota zidaten arren, segituan kozkorra ateratziz zidan. Partida amaitu ondoren larrialdietara joan nintzen eta 15 egunez ez jokatzeke esan zidan medikuak, ezta entrenatzeko ere. Geldirik egoteko, alegia, bendarekin».

Txapelketa honen barruan datorren ostegunean beste partida bat zuten, baina ez du jokatzetik izango. Halere, Onsalok adierazi duenez, «txapelketak oraindik

luze joko du». Astelehenekoa txapelketa honen barruan bigarren partida izan zen Onsalorentzat.

Mina hartu arren, Onsalok Kan txo bere bikotearekin Mendizabal eta Mendinueta pilotariaren aurka irabazi zuen, Mallabian.

Olazabal eta Barriola

Bestalde, atzo Olazabalek eta Barriolak lagunarteko partida jokatu zuten Eibarko Astelena pilotalekuan. Hiru partida jokatu zituzten Eibarren, Barriolak Irujorekin jokatu zuen (Berasaluze IX.a eta Apeztegia eta Arizmendi eta eta Uriarteren artekoaren ondoren), Gonzalez eta Goñi III.aren aurka, eta 22-16 irabazi zuten.

Olazabalek Galarza VI.aren jokatu zuen Galarza V.a eta Arrutiaren aurka. 18-11 irabazi arren, partida «oso xamarra» izan zela azaldu du Olazabalek. «Pilotak ere nahiko motelak ziren».

Joan den astean Tolosan bikote beraren aurka aritu ziren. Txanda honetan 22-15 galdu zuten, astelehenean, berriz, beraiek irabazi zuten (22-13).



San Jose Eguna ospatzen

BELAUNTZA » Joan den asteazkenean San Jose eguna ospatu zuten inguruko herrietan. Belauntzan, esaterako, 11:00etan San Jose ermitan meza ospatu ondoren bertako dantzariak ekitaldia egin zuten. Ondoren, Villanueva ardoen laguntzaz hamaiketako egin zuten. Rotorara 60 lagun inguruk parte hartu zuten ospakizunetan. HITZA

Hilberria

JUAN IMAZ MENDIZABAL

—Goian bego—

Lore bat bezala joan zera udaberria heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean.



Agustin Zurutuza

ORDIZIA
2008ko martxoaren 26a

JOSE BERNARDO ZUBELDIA

(Jokin Zubeldia Xunbel euskal preso politikoko ohiaren aita)
2008ko martxoaren 22an hil zen.



Zure alaitasuna eta irribarre goxoa, guretzat eredu

Amezketako ezker abertzalea



AMEZKETAN,
2008ko martxoaren 26an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



9°
6°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 14°
HOTZENA 10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Aizkardi elkartearen 40. Ibilaldia izango da igandean. Bi ibilbide Leizaranen zehar: hamar ordukoa, eta 5 ordu eta erdikoa. Izen-ematea, www.aizkardi.com, elkartean edo 649717182 zenbakian (20:00etatik 22:00etara).

Erakusketa

■ **Tolosa.** Tomas Hernandez Mendizabal artista donostiarraren erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañaga artista tolosarraren margolanak daude ikusgai Aranburu Jauregian.
■ **Alegia.** Patxi Tena tolosarra urtero Kubara joaten da eta bertatik, artea ikasten duten ikasleen lanak ekartzen ditu. Ikusgai hilabete osoan zehar jubilatuen tabernan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943673274.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Uraren eta euriaren indarra

LIZARTZA ■ Erreketan jada egun hauetako euriteen ondorioak nabarmenak dira, baita errepide bazterretan ere. Lizartza eta Txarama artean lur-jausia izan da. Errepide horretako bihurgune batean euriaren indarraren

ondorioz zuhaiz bat erori egin da, lurra berarekin eramanez. Errepidearen beste aldean, erreka ondoan dagoen hormaren zati bat ere hautsi egin da. Hori dela eta, beharrezkoak diren bide-seinaleak jarri dituzte. n.e.

A Agurrak



Urte askoan!

Juanek gaur eta Paulak datorren asteazkenean urteak. Zorionak familiaren eta biloben partetik.



Urte askoan!

July Etxarri (Leitza). 11 urte bete dituzu. Zorionak aitaren eta amaren partetik.



Zorionak!

Elixabet Lopetedi. 9 urte. Zorionak denon partetik eta ondo pasa.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

txokoa **h**

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC

Ciudad de la Laguna Canarias

OSTIRALA

MARTXOAK **28-20:30**

ILLUNBE